



*Bigarren Lehendakariordea eta Lan eta Enpleguko Sailburua
Vicelehendakari Segunda y Consejera de Trabajo y Empleo*

AGINDUA, 2023KO APIRILAREN 12KOA, BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA LAN ETA ENPLEGU SAILBURUARENA, BIZKAIKO EGOITZEN SEKTOREAN (EGOITZA-ZENTROAK, ETXEBIZITZA KOMUNITARIOAK ETA EGUNEKO ZENTROAK) 2023KO MARTXOAREN 8AN, APIRILAREN 3, 4, 5 ETA MAIATZAREN 15, 16, 17, 18, 19 ETA 20RAKO DEITUTAKO GREBAN EMATEN ZAION FUNTSEZKO ZERBITZUARI EUSTEA BERMATZEN DUEN LAN ETA ENPLEGU SAILBURUAREN 2023KO MARTXOAREN 7KO AGINDUA ALDATZEN DUENA.

2023ko martxoaren 7ko Aginduan, 2023ko martxoaren 8rako, apirilaren 3, 4, 5 eta 15erako, 16 17 18, 19 eta 20rako deitutako greban Bizkaiko Egoitzen sektorean (egoitza-zentroak, etxebizitza komunitarioak eta eguneko zentroak) Erkidegoari ematen zaion funtsezko zerbitzuei bermatzen duena, honako ez-egite hauek antzeman dira:

Duela gutxi, 2023ko martxoaren 22ko Agindua eman da, Bigarren Lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuarena. Agindu horren bidez, 2023ko martxoaren 10eko Agindua osatzen da, zeinaren bidez bermatzen baita 2023ko martxoaren 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 23 eta 24rako deitutako greban Bizkaiko egoitzen sektorean (egoitza-zentroak, etxebizitza komunitarioak eta eguneko zentroak) ezinbesteko zerbitzuak mantenduko direla, garbitegi-zerbitzua bermatzeko. Horrela, grebak hamar egun jarraian irauten duenez, erabiltzaileen osasuna zaintzen da.

Idazki honetan, aurreko kasuan bezala, Agintaritza honek ohartarazi du Bizkaiko Egoitzen sektorean CCOO sindikatuak aurkeztutako beste greba-deialdi baten ondorioz, maiatzean bederatzi greba egun jarraian egingo direla, 2023ko maiatzaren 15ean, 16an, 17an, 18an, 19an eta 20an, 22an, 23an eta 24an. Bakarrik etengo dira igande batez, 2023ko maiatzaren 21ean.

Horregatik, grebaren iraupena dela eta, bederatzi egunez jarraian eta bakarrik igande batez etenda, garbitegi-zerbitzua bermatu behar da, erabiltzaileen osasuna zaintzeko.

Gainera, premisa horiek abiapuntutzat hartuta, eta kontuan hartuta otsailaz geroztik ia lau greba aste igaro direla, maiatzean bederatzi greba egun izango direla, bakarrik maiatzaren 21eko igandean etenda, eta apirilaren 20tik maiatzaren 24ra bitarteko 35 egunetan Bizkaiko egoitzetako langileek 22 greba egun egitera deituak daudela, beharrezkoa da 2023ko maiatzaren 15ean, 16an, 17an, 18an, 19an eta 20an arreta zuzeneko langileen ehuneko pixka bat handitzea, erabiltzaileen osasunak okerrera egin ez dezan. Hori dela eta, Bizkaiko egoitza pribatuetan eta etxebizitza komunitarioetan zuzeneko arreta ematen duten gerokultoreen edo antzekoen % 70ek eman behar dute zerbitzua, bazkaltzeko ohiko ordutegian izan ezik eta goizeko 08: 00etatik 10: 30era eta 20: 00etatik 22: 00etara izan ezik, orduan ehuneko hori % 10 igoko baita.

Behar bezala babestu behar dira bizitzarako, osotasun fisiko eta moralerako eta osasun-babeserako eskubideak —Konstituzioaren 15. eta 43.1. artikuluetan jasotakoak—, zeinak agintari publikoek bermatu behar baitituzte ziurtatuta beharrezkoak diren zerbitzuak ematen direla eta prebentzio-neurriak ezarrita, eta, aldi berean, greba egiteko eskubidea zilegi dela kontuan hartuta. 10.1. artikulua xedatzen duenez, gizabanakoaren duintasuna ordena politikoaren eta gizarte-bakearen oinarri da. Halaber, Konstituzioaren 49. artikulua xedatzen duenez, «Botere publikoek aurreneurri-, tratamendu-, bizkortze- eta gizarteratze-politika egingo dute elbarri fisikoentzat, zentzumen-elbarrientzat eta elbarri psikikoentzat; horiei, eurek behar duten arreta berezia emango zaie, eta bereziki babestuko dira, titulu honek herritar guztiei ematen dizkien eskubideak egikaritu ahal izateko».

Bestalde, osasunaren babesa herritarrek gutxieneko osasun-prestazioak eskatzeko duten eskubide gisa islatzen da, giza duintasunaren eta estatu bakoitzaren garapen sozial eta ekonomikoaren arabera. Hala, Giza Eskubideen Adierazpenak (NBE, 1948) 25.1 artikuluan dioenez, «Pertsona orok du osasunerako eta ongizaterako eskubidea, eta, bereziki, laguntza medikorako eta beharrezko gizarte-zerbitzuetarako», eta zentzu berean adierazten dira Europako Gutun Sozialaren 11. artikulua, Europako Kontseiluarena (Turin, 1961) eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren (NBE 1966) 12. artikulua.

Aurreko guztia kontuan izanik Bizkaiko egoitzen sektoreko greba-deialdi berri horri dagokionez, gobernu-agintaritzak neurri egokiak hartu beharko ditu bermatzeko funtsezko zerbitzuari eutsiko zaiola egoitza arretan, bat etorrita honako arau hauetan ezarritakoarekin: Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 26. artikulua eta horrekin bat datozenak; eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua, Adintsuentzako etxeetako gizarte-zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretua (uztailaren 30eko 126/2019 Dekretuaren bidez aldatua), eta Laguntza behar duten adinekoentzako eguneko zentzoei buruzko urriaren 17ko 202/2000 Dekretua, betiere Konstituzioaren 15. eta 43.1. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

Premisa horietatik abiatuta, garbiketako langileei dagokienez, lan horretan erabili ohi den lanaldiaren % 20an emango dela zerbitzua ezartzen da, 2023ko maiatzaren 17an eta 20an, egoiliarren barruko arropa garbitu eta lehertzeko eta arropa laua garbitu eta lehertzeko lanak, hau da, maindireak, burkoak eta toallak, barne hartuta. Era berean, ezarri behar da Bizkaiko egoitza pribatuetan eta etxebizitza komunitarioetan zuzeneko arreta ematen duten gerokultoreen edo antzekoen % 70ek eman behar dutela zerbitzua, otorduetako ohiko ordutegian izan ezik, eta goizeko 8: 00etatik 10: 30era eta 20: 00etatik 22: 00etara, horietan ehuneko hori % 10 igoko baita. Era berean, gaueko txandan,

zuzeneko arretako langileen % 100ek eman beharko du zerbitzua, eta egin beharreko zereginak “zuzeneko arretakoak” izango dira soilik.

Nahiz eta aurreko eta azkenaldiko gutxieneko zerbitzuen aginduetan, oraingoa baino aldi laburragoetako greba-deialdiei buruzkoetan, ez den gutxieneko zerbitzurik ezarri ikuztegiko langileei dagokienez, oraingo greba-deialdiak, guztira, segidako bederatzi egun hartzen ditu, igande batez etenda, eta otsailaz geroztik ia lau asteko greba egin da. Hala ere, erabiltzaileen osasun-eskubidea babesteko, beharrezkoa da garbitegi-zerbitzua sartzea eta egoitza pribatuetan eta etxebizitza komunitarioetan gerokultoreen edo antzekoen kopurua pixka bat handitzea gutxieneko zerbitzuei buruzko agindu honetan.

Hori dela eta, Jaurlaritzak agindu honetan zehazten diren gutxieneko zerbitzuak ezarri behar ditu, gatazkan dauden eskubideen funtsezko edukia bateragarri egiteko.

Horregatik guztiagatik, bigarren Lehendakariordeak eta Lan eta Enplegu Sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkartza hartuta, honako hau

EBAZTEN DU:

Lehena. – Bigarren Lehendakariordea eta Lan eta Enplegu Sailburuaren Martxoaren 7ko Aginduaren, Bizkaiko Egoitzen Sektorean (egoitza-zentroak, etxebizitza komunitarioak eta eguneko zentroak) 2023ko martxoaren 8rako, apirilaren 3, 4, 5rako eta maiatzaren 15, 16, 17, 18, 19 eta 20rako deitutako greban gizarteari ematen zaizkion ezinbesteko zerbitzuak mantenduko direla bermatzen duena, xedapen-zatiari hurrengoa gehitzea: Lehenengo Ebazpen zatian, hurrengo paragrafoak:

2.2. paragrafoan (Egoitzak), komatxo arteko paragrafo hau gehitzen da:
“2023ko maiatzaren 15etik 20ra bitarteko eguneko eta arratsaldeko txandetan, zuzeneko arreta ematen duten gerokultoreen edo antzekoen % 70ek mantenduko da, otorduetako ohiko ordutegian izan ezik, baita goizeko 08: 00etatik 10: 30era eta 20: 00etatik 22: 00etara ere, orduan ehuneko hori % 10 igoko baita”.

Atal berri bat sartzen da:

“2.9. Ikuztegiko langileak

Garbitegiak, ordena horretan, egoiliarren barruko arropa garbitu eta lehortzea baino ez du egingo, eta, bigarrenik, arropa laua (maindireak, burkoak eta toallak) garbitu eta lehortzea.

Zerbitzua egiteko erabili ohi den lanaldiaren % 20an emango da, 2023ko maiatzaren 17an eta 20an, aurreko paragrafoan deskribatutako lanak egiteko”.

Bigarrenena.- Beraz, agindu horretan ezarritako gainerako gutxieneko zerbitzuak mantentzen dira.

Hirugarrena.- Jakinarazten den egunean jarriko da indarrean agindu hau.

Laugarrena.- Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela jakinarazi behar zaie, eta horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren dagokion salan, ebazpena jakinarazten denetik 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera

Era berean, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz, honako hau ere jakinarazi behar zaie: agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daitekeela lan-agintaritza honetan, hilabeteko epean agindua jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, **2023ko apirilaren 12an.**



**BIGARREN LEHENDAKARiordea eta
LAN eta ENPLEGUko SAILBURUA**